

Abioiak, bizileku aproposak bakterioentzat

AUBURNEKO unibertsitate estatu-batuaren biologo talde baten arabera, bakterio batzuek gaitasuna dute hainbat egun bizirauteko abioietako leihatiletako beso-euskarrietan, plastikozko mahaletan eta bidaiariek erabili ohi dituzten zenbait objektutan.

Bakterio horietako bat *Staphylococcus aureus* da, zenbait kasutan azaleko infekzio hilgarria sor dezakeena. Halaber, digestio aparatuan arazo larriak sortzen dituen *Escherichia coli* ezaguna usu aurkitzen da hegazkintan.

Aipatu bakterioen erresistentzia neurtzeko, abioietan erabiltzen diren hainbat tresna hegalaldiko baldintzetan mantendu dira, hau da, 24 graduko tenperaturan eta %18ko hezetasunean. Ikerlariak behatu dutenez, *Escherichia coli*-k lau egun iraun du beso-euskarrietan, eta hiru egun jateko plateretan. *Staphylococcus aureus*, berriz, gai izan da astebete bizirauteko eserlekuak estaltzeko erabiltzen diren oihaletan.

Azterketaren emaitzak ikusita, AEBetako abiazio konpainietako arduradunek abioien desinfekzioari buruzko hainbat aholku jaso dituzte. ■



JER.DV



Smartphonekiko mendetasuna, psikiatren pagotxa Asian

KHABRAINMANCHESTER.COM



SMARTPHONEN ERABILERA arazo psikiatriko bilakatzeko bidean da Asiako estatu askotan. Hego Korean, Singapurren, Taiwanen eta Txinan gailu horien gehiegizko erabilerragatik kezka zabaldu da.

Singapurren bizi diren 5,5 milioi pertsonen %87k smartphonak ditu, AEBetan %65ek baino ez, eta Facebookera konektatzen diren bakoitzean 38 minututik gora pasatzen dute bertan, estatubatuarrek halako bi.

Telefono horiek eta, oro har, interneteko zerbitzuek sortzen dituzten mendetasunak ez daude medikuntza liburuetan jasota, eta horrek segurtasun eza handia sortzen du psikiatren diagnostiko egiteko garaian.

Kalkulatu da hainbat estatutan populazioaren %5ek baino gehiagok izan dezakeela mota horretako arazoren bat. Portzentajeak, gainera, gora egingo duela aurreikusi denez, prebentzio bideak jorratzen hasiak dira. ■



Aerosolek eragin handia dute hodeien sorkuntzan

Orain 30 urte konturatu ziren zientzialariak klorofluor hidrokarburozko aerosolek Antartika-ko ozono geruzan arazo larriak sortzen zituztela. Substantzia haiek debekatu egin ziren, eta egun beste batzuk erabiltzen dira aerosol gisa. Oraindik ez da ondo ezagutzen horien eragina, baina berriki jakin da hodeien sorrera biziki azkartzen dutela.

ttiki.com/68922
(Euskaraz)

Curiosity zunda, (bertako) urte bat Marteko datuak jasotzen

2012ko abuztuaren 6an Martera iritsi zen Curiosity zunda. Urtebete darama han, datu biltzetan, baina Marteko urte bat, ez Lurrekoa. Zehazki, joan den ekainaren 24an bete zen urteurren hori. Kontuan izan behar da Marte Lurra baino urrutiago dagoela eguzkitik, eta gainera abiadura txikiagoan mugitzen dela.

ttiki.com/68923
(Frantsesez)

Apar arin eta zurruna aldi berean

AEBetako hainbat zentro teknologikotako ikerlariak sortutako material berriak arintasuna eta zurruntasuna uztartzen ditu. Apar bat da, eta okupatzen duen espazioaren %99 hutsa da, baina antzeko materialak baino 10.000 aldiz zurrunagoa da. Eraikuntzan eta hegazkintzan izango du erabilpen gehien.

ttiki.com/68924
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak
multimedia
aholkularitza
edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16